



**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO GAITASUN PROBAK**  
**2005-06 ikasturtea**  
**IRAKASGAIA: EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA**

**ARGIBIDE OROKORRAK ETA BALIOESPENA**

1. Proban bi aukera (A eta B) emango dira eta horietatik bat hautatu beharko duzu.
2. Soilik hautatu duzun (A ala B) aukerako galderei erantzun. Behin aukera bat hautaturik, soilik balioetsiko dira aukera horretatik erantzundako galderak.
3. Atal bakoitzean adierazten da gehienez lor daitekeen puntuazioa.

**A AUKERA**

**A)PROBA TEORIKOA.**

**Erantzunetik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0,30. Erantzun okerra: -0,10. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.**

1. Produktu baten bizitza-zikloak honako aldi hauek ditu:
  - a) Sarrera, Hazkundera, Heldutasuna.
  - b) Sarrera, Hazkundera, Heldutasuna eta Gainbehera.
  - c) Sarrera, Hedakuntza eta Gainbehera.
2. Enpresa batek *Just in Time* sistema aplikatzen badu:
  - a) Biltegiko izakinak gehiagotuko ditu, etorkizunean saltzeko.
  - b) Ez du ia hornitzailearik edukiko.
  - c) Ez ditu biltegiak lehengaiez beterik edukiko.
3. Honako hau da zuzendaritzak mendeko mailen egoera ezagutzeko komunikazio-bidea:
  - a) Beheranzko kanala.
  - b) Goranzko fluxua.
  - c) Alboko sarea.
4. Plan gehienek honako elementu hauek sartzen dituzte beren baitan:
  - a) Zuzendaritza mailak eta zuzendaritzakoek eduki behar dituzten kalitate tekniko, giza eta gogoeta kalitateak.
  - b) Helburuak, estrategiak eta eginbeharren banaketa.
  - c) Helburuak, politikak, prozedurak, arauak eta aurrekontuak.
5. Zer sektoretan jarduten duten arabera, enpresak honela sailkatzen dira:
  - a) Anonimoak, mugatuak, kolektiboak eta komanditarioak.
  - b) Txikiak, ertainak eta handiak.
  - c) Lehen sektorekoak, bigarrenkoak eta hirugarrenkoak.
6. Kontabilitatearen ikuspuntutik, amortizazioa hauxe da:
  - a) Enpresaren autofinantzaketa.
  - b) Enpresaren jabeak aberastea.
  - c) Aktibo finkoko elementu baten balioaleraren moneta-balioespena.





7. Ondoko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?
- Enpresa baten aktiboak adierazten du baliabideen jatorria, eta pasiboak baliabideen aplikazioa nolakoa izan den.
  - Enpresa baten pasiboak adierazten du ekitaldi bateko mozkinaren jatorria, eta aktiboak mozkina nola erabili den.
  - Enpresa baten aktiboak adierazten du baliabideen jatorria, eta pasiboak baliabideen aplikazioa nolakoa izan den.
8. Zein da baiztapen zuzena?
- Funtzioen araberako departamentalizazioa da produktu bakarra ekoizten duten enpresa ertainek eta handiek gehien erabiltzen dutena.
  - Enpresa handi gehienek departamentalizazio mistoa erabiltzen dute.
  - Prozesuen eta makineriaren araberako departamentalizazioa da garestiena.
9. Lan-sozietate bat:
- S.A. bat da, edo S.L. bat, zeinean kapitalaren % 51 gutxienez langileena baita, beren lan-egoera edozein izanda ere.
  - Sozietate bat da, zeinean langile guztiak ezinbestez bazkide izan behar baitira.
  - Abantaila bat dauka, akzioen edo partaidetzen transmisioa askea dela, alegia.
10. Kapitalizatzeak honetarako bidea ematen du:
- Kapital baten balioa geroagoko une batean ezagutzea.
  - Kapital baten balioa aurreragoko une batean ezagutzea.
  - Kapitalaren zati bat erreserbetara pasatzea.
11. Honako hau da, funtsean, giza baliabideen kudeaketa:
- Aldez aurretik pentsatu den moduan, pertsonen, eman zaizkien eginbeharrak eta esleitu zaizkien ardurak bete ditzaten lortzea.
  - Pertsonen eta taldeen artean lana banatzea, eta denen jardunak koordinatzea.
  - Helburuak ezartzea, eta beroriek lortzeko beharrezkoak diren estrategiak eta eginbeharrak erabakitzea.
12. Zein da baieztapen zuzena?
- Enpresa baten kapitala honela banatzen da: Garbia eta Funts Berekiak.
  - Pasibo galdagarria honela banatzen da: epe motzekoa eta epe luzekoa.
  - Funts berekiak honela banatzen dira: finkoak eta zirkulatuak.
13. Kostu-lidergoaren estrategia honetan datza:
- Lehiakideek baino kalitate handiagoarekin eta ekoizpen-kostu handiagoekin produzitzea.
  - Lehiakideek baino kalitate handiagoarekin produzitzea, baina kostu antzekoekin.
  - Lehiakideek baino ekoizpen-kostu txikiagoekin produzitzea, baina haienaren antzeko kalitatearekin.
14. Marketing-mix-eko tresna estrategikoak, epe luzean aldatzen ahal direnak, honako hauek dira:
- Produktuak eta sustapena.
  - Salneurria eta sustapena.
  - Produktua eta banaketa.
15. Koordinazio mekanismo garrantzizkoen artean honako hauek aipa ditzakegu:
- Hierarkia, Aginte-batasuna, Lanaren banaketa eta Espezializazioa.
  - Emaitzen normalizazioa, Gainbegiratze zuzena eta Elkarrekiko egokitzapena.
  - Departamentalizazio funtzionala, Departamentalizazio geografikoa eta Produktuen araberako departamentalizazioa.
16. "Hedadura ekonomiak" deitzen direnak honelakoetan gertatzen dira:
- Ekoiztutako ale-kopurua gehitzean aleko kostuak jaisten direnean.
  - Enpresak osagarriak diren ondasunak ekoizten dituenean.





- c) Bi edo ondasun gehiago batera ekoiztean edota merkaturatzean, horren kostua bereiz egingo bagenu litzatekeena baino baxuagoa denean.
17. Giza baliabideen zuzendaritza edo kudeaketa lau elementu funtsezkotan oinarritzen da:
- Ingurune orokorra, ingurune espezifikoak, barne analisia eta lehiatzeko estrategiak.
  - Antolamenduzko printzipioen diseinua, lanpostuen diseinua, lanpostuen multzokatzea, organigrama.
  - Enplegatuen motibazioa, zuzendaritzakoan lidergoa, pertsonen arteko komunikazioa, enplegatuen jakintza eta egiten jakitea.
18. Eman ezazu erantzun zuzena:
- Hauxe da benchmarking: produktu bat egiteko edo zerbitzu bat emateko modurik onenak imitatzea.
  - Patente bat industria batena den informazioa da, isilpekotzat jotzen dena edo ezagutza orokorrekoa ez dena, eta bere jabeari lehiakideen aurrean abantaila ematen diona.
  - Industria espioitza hauxe da: produktu baten diseinua deskubritzea produktu bukatu horretatik abiatuz.
19. Lehiakideen arteko lehia-maila, balizko lehiakideen mehatxua, ordezko produktuen mehatxua, hornitzaileen eta bezeroen ahalmen negoziatzailea:
- Enpresak bere jarduera aurrera eramateko dituen baliabideak eta ahalmenak dira.
  - Arlo zehatz batean lehiatzen diren oinarritako lehia-indarrak dira.
  - Enpresaren balio-katea osatzen duten jarduerak dira.
20. Zein da baieztapen zuzena?
- Batez besteko kostu finakoaren kurba beti beherantz doa, kopuru finko bat gero eta handiagoa den kopuru batez zatitzen duelako.
  - Batez besteko kostu finakoaren kurba horizontala da, kostu finkoa ez delako aldatzen.
  - Kostu osoaren kurba koordenaden jatorrian sortzen da, kostu finkoa ez duelako aintzat hartzen.

## B) PROBA PRAKTIKOA

### LEHEN ARIKETA. (PUNTUAZIOA GEHIENEZ: PUNTU 1)

SADAR, S. A. enpresak 60.000 € dauka lau proiektu ezberdinetan inbertitzeko. Proiektu bakoitzean beharrezkoak diren inbertsioak, espero diren kutxako emari garbiak eta iraupena ondoko taula honetan aurkezten dira. (**milaka eurotan**).

PROIEKTUA	HASIERAKO ORDAINKETA	1.URTEA	2.URTEA	3.URTEA	4.URTEA	5.URTEA
A	30	10	12	13	17	12
B	25	7	8	6	6,5	4
C	35	17	20	12	8	6
D	15	8	10	14	7	0

Merkatuko interesa % 12 da. Enpresak soilik proiektu bakar bat egiteko baliabideak ditu.

### HAU ESKATZEN DA:

**Ordenatu** Inbertsio proiektuak Balio Eguneratu Garbiaren metodoaren arabera eta **adierazi** zein proiektu burutuko diren. Demostratu.

**OHARRA:** Biribildu zifrak bi hamarrenekin.





**BIGARRREN ARIKETA. (PUNTUAZIOA GEHIENEZ: 3 PUNTU)**

“ELEKTRETXE, S.L.” enpresak etxetresna elektrikoak saldu eta erosten ditu. Honako hau da abenduaren 31n aurkezten duen ondareko elementuen zerrenda, eurotan:

■ Bere jabetzako lokal bat2.....	2.250
■ Kobratzeko dauden fakturak, egindako salmentengatik .....	2.200
■ Mozkinak, legez banatu ez direnak.....	1.550
■ Eskudirua .....	1.750
■ Bi urterako zorra, lokala eta altzariak erosteagatik.....	1.200
■ Kontu korranteetan gordailututako dirua .....	1.650
■ Bezeroen gaineko kanbio-letrak .....	1.000
■ Lokala dagoen lursaila .....	2.000
■ Hainbat urtetako Ibilgetu Materialaren Amortizazio Metatua.....	625
■ Enpresak ekitaldi ekonomiko honetan, interesak eta zergak eta gero, lortu dituen mozkinak honakoak dira .....	¿.....?
■ Bazkideen hasierako ekarpena .....	¿.....?
■ Etxetresna elektrikoak erosteagatik ordaindu beharreko fakturak .....	3.300
■ Gizarte segurantzarekin duen zorra, kotizazioak direla-eta .....	650
■ Zorra, beste enpresa batek 3 urtera eman duen mailegu batengatik .....	2.800
■ Telefonoaren eta elektrizitatearen fakturak, ordaintzeko daudenak .....	2.050
■ Etxetresna elektrikoak garraiatzeko ibilgailua .....	700
■ Marka komertzial erregistratua .....	125
■ Urte baterako kreditua, furgoneta bat eta bi ordenagailu saltzeagatik .....	2.400
■ Mahaiak, apalategiak, erakustegiak .....	1.550
■ Biltegian dauden etxetresna elektrikoaren balioa .....	7.000
■ Banku batek emandako mailegua, urte batekoa .....	1.500

Urte honen amaieran lortutako irabazia interes eta zergak kontuan hartu aurretik 4.150 eurora iritsi da.

Urte honetan finantza gastuengatik 1.150 euro ordaindu dira. Irabaziaren gaineko Zergaren ezarpen-tasa % 35 da.

**HAU ESKATZEN DA:**

A) **Egoera balantzea idaztea**, ondare masen arabera sailkatua: Aktiboa likidezia txikienetik handienera eta Pasiboa galdagarritasun txikienetik handienera. (1'75 puntu)

B) **Kalkulatu** Errentagarritasun ekonomiko eta Finantza-errentagarritasuna. (0,5 puntu)

C) Hurrengo ekitaldi ekonomikoan, enpresak inbertsio bat egin du aktiboa 10.000 €-tan igoz eta interesen eta zergen aurreko mozkin 8.150 € da.

Aipatu inbertsioa finantzatzen badu, soilik kapital-gehikuntza (funts berekiak) erabiliz, Mozkin Garbia 4.550 € da. Aldiz, mailegu baten bidez finantzatzen badu, pasibo galdagarria gehituz, Mozkin Garbia 3.900 € da.

Zorraren batez besteko interes-tasa % 10 da.

**Komenta** ezazu bi egoeretako **palanka-efektu finantzariora** (0'75 puntu) (2)

(2) Azalpena laguntzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu.

**OHARRA:** Biribildu zifrak bi hamarrenekin.





## **B AUKERA**

### **A) PROBA TEORIKOA**

**Erantzunetatik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0,30. Erantzun okerra: -0,10.  
Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.**

1. Inbertsioak aukeratzeko irizpideen artean, berreskuratze epearenak:
  - a) Inbertsioaren bizitza erabilgarriaren denbora kalkulatzeko du.
  - b) Inbertsiorako hasieran jarri den dirua berreskuratzeke zenbat denbora behar den kalkulatzeko du.
  - c) Inbertsioaren errentagarritasuna kalkulatzeko ahalegin berezia egiten du.
2. Sozietate anonimoaren ezaugarri garrantzizkoak honako hau da:
  - a) Bazkideen erantzukizun ekonomikoa bere ekarpenen balioa baizik ez da.
  - b) Bazkideen erantzukizun ekonomikoa mugagabea da eta bere ondasun pertsonalekin ere erantzuten dute.
  - c) Enpresa zuzentzen duten bazkideek baizik ez dute erantzukizun ekonomikoa.
3. Zer da organigrama bat?
  - a) Irudikapen grafikoa da, zeinean antolamendu-unitateak eta euren artean dauden harremanak islatzen baitira.
  - b) Enpresaren ekoizpen-planta nola dagoen banatuta, geografikoki, adierazten duen irudikapen grafikoa.
  - c) Grafiko bat da, zeinean nagusi batek mendekoari delegatu dizkion funtzioak irudikatzen baitira.
4. Honako izen hau daukate enpresak baliabide finantzarioak lortzeko dituen moduek:
  - a) Kredituak.
  - b) Iturri finantzarioak.
  - c) Finantza erakundeak.
5. Inbentarioa honela defini dezakegu:
  - a) Enpresak une jakin baten daukan ondarearen zerrenda zehatza.
  - b) Ondare-garbiaren zerrenda zehatza eta balioetsia.
  - c) Enpresak une jakin batean daukan ondarearen elementuen zerrenda zehatza eta balioetsia.
6. Harremanean jarri:

1) Sinergetiko	A) Enpresak inguruarekin elkarrengaitan daude.
2) Autorregulatua	B) Unitateetan egiten den edozein aldaketak sisteman eragiten du.
3) Globala	C) Enpresak berak dauka inguruan gertatzen diren aldaketei egokitzeko mekanismoak.
4) Irekia	D) Zenbait jokabide eta zenbait emaitza ezin zaizkio egotzi osagai jakin bati.
- a) 1-A, 2-C, 3-D, 4-B  
b) 1-D, 2-C, 3-A, 4-B  
c) 1-D, 2-C, 3-B, 4-A
7. Honako jarduerak hauek osatzen dute zuzentzeko funtzioak:
  - a) Inbertitzeak, produzitzeak, finantzatzeak eta saltzeak.
  - b) Planifikatzeak, antolatzeak, kudeatzeak eta kontrolatzeak.
  - c) Gastatzeak, erosteak, fabrikatzeak, saltzeak eta kobratzeak.



8. Maslowentzat, beharrak piramide baten erara irudika daitezke, hurrenkera honen arabera (oinarritik hasita):

- a) Fisiologikoak, sozialak, segurtasunezkoak, estimua, autorrealizazioa.
- b) Lehen mailakoak, sozialak, estimua, segurtasunezkoak, autorrealizazioa.
- c) Fisiologikoak, segurtasunezkoak, sozialak, estimua, autorrealizazioa.

9. Honako hauek aipa ditzakegu enpresa baten ingurune espezifikoaren faktoreen artetik:

- a) Garapen ekonomikoaren maila, lehengaien eskuragarritasuna, merkatu-mota eta zergen maila.
- b) Bezeroak, finantza erakundeak, lehiakideak, hornitzaileak eta Administrazioa.
- c) Herriaren egonkortasun politikoa, garapen teknologikoa, hezkuntza sistema eta ekoizpena antolatzekeo sistemak.

10. Enpresa baten produktu-zorroa:

- a) Enpresak garatu nahi dituen produktu berriek osatzen dute.
- b) Produktu lerro bat osatzen du.
- c) Enpresa edo erakunde batek eskaintzen dituen produktuen multzoa da.

11. Banakako enpresaburua honako hau da:

- a) Dirua irabazteko asmoa duen jarduera ekonomikoa egin ohi duen pertsona juridikoa, gainera lan-kontratua daukana.
- b) Dirua irabazteko asmoa duen jarduera ekonomikoa egin ohi duen pertsona juridikoa, beti erantzukizunmugagabea duena.
- c) Dirua irabazteko asmoa duen jarduera ekonomikoa egin ohi duen pertsona juridikoa, hala ere lan-kontratua ez daukana.

12. Ondorengo hauetako zein jotzen da inbertsioztat?

- a) Enpresak duen eraikinaren alokairua ordaintzea.
- b) Banku-mailegu bat eskatzea.
- c) Ibilgetuko elementu bat erostea.

13. Ondoko hiru aukera hauetatik, zein da zuzena?

- a) Marketinak eskaria identifikatu, sortu edo garatzen du.
- b) Marketinak beharrak identifikatu, sortu edo garatzen ditu.
- c) Marketinak desioak identifikatu eta sortzen ditu.

14. Honako hau da egitura lineal edo hierarkikoaren ezaugarria:

- a) Erakundearen atal desberdinetako espezialistak elkartu egiten dira proiektu zehatzetan lan egiteko.
- b) Pertsona-talde batek elkarbanatzen ditu agintea eta erantzukizuna.
- c) Bere oinarria da nagusiak mendekoekiko daukan aginte zuzena.

15. Enpresek, hazterakoan, joan dira ikusten zer garrantzizkoa den beren horniketetan eta beren ekoizpenen banaketan egonkortasuna eta segurtasuna edukitzea. Horregatik, kasu askotan, beren zabaltze-formuletan honako honen alde egin dute:

- a) Integrazio bertikala.
- b) Integrazio horizontala.
- c) Lankidetzatza produktiboa eta merkataritzakoa.

16. Honako hauek dira inbentario-kudeaketa on baten ezaugarriak:

- a) Denbora-eremu guztia beteko duen biltegiatze bakar bat egitea. Biltegiatze-kostuak ahalik eta gehien murriztea.
- b) Izakinen mantenu-kostuak ahalik eta gehien murriztea, baita ahalik eta stock-haustura gutxien lortzea ere.
- c) Biltegiatze-kostuak ahalik eta gehien murriztea, denbora-eremuan eskaera asko eginez.



17. Bada teoria bat suposatzen duena pertsona gehienak, izaeraz, alferrak direla, ez zaiela lana gustatzen, eta beldurrak eta dirugoseak baizik ez dituela bultzatzen. Teoria honen egilea honako hau da:

- F. Taylor
- E. Mayo
- H. Fayol

18. Honako honi deitzen zaio lehiarako estrategia:

- Enpresako produktuek lehaikideen produktuen aurrean duten aldeko desberdintasunari.
- Produktuaren ezaugarriren bat azpimarratzea, erosleek "ezberdin" antzematen dutena eta lehiatzaileek baino prezio handiagoa ezartzea posible egiten duena, eskusibitate hori dela-eta.
- Enpresak egiten duen ekintza-multzoa, bere merkatuaren barruan abantailazko posizio eusgarria hartzea ahalbidetzen diona.

19. Eman ezazu erantzun zuzena:

- Esperientzia-ekonomia hauxe da: produktu bat egiteko edo zerbitzu bat emateko modurik onenak imitatzea.
- Atzeranzko ingeniariaritzaren hauxe da: produktu baten diseinua deskubritzea produktu bukatu horretatik abiatuz.
- Benchmarking-aren bidez, enpresak produktuen aleko kostua gutxiagotzen du, langileek beroriek egiten esperientzia handiagoa dutelako.

20. Hezberg-en motibazio-teoriak:

- Uste du bi faktorek zehazten dutela pertsona batek helburu bat harrapatzeko daukan motibazioa: helburuari ematen zaion garrantzia eta benetan harrapatu ahal izateko dagoen espektatiba.
- Uste du enpresaburuak langileak motibatzeko daukan jokabidea, X eta Y bezala identifikatu zituen pertsonen gaineko ikuspegiaren arabera dela.
- Uste du bi faktorek eragiten dutela pertsonen motibazioan: mantentze eta higiene-faktoreak eta motibazio-faktoreak.

## B) PROBA PRAKTIKOA

### LEHEN ARIKETA. (PUNTUAZIOA GEHIENEZ: PUNTU 1)

ARAGON, S.A. enpresak automobilentzako produktuak fabrikatzen ditu.

Finantza-zuzendariak honako informazio hau aurkeztu du, "GALGA SEGURUA" deitzen den eta enpresak fabrikatzen duen produktu bati dagokiona.

- Eskulanaren kostu finkoa ..... 31.000 euro urteko
- Industria-lantegiaren alokairuaren kostu finkoa ..... 10.000 euro urteko
- Beste hainbat kostu finko ..... 19.000 euro urteko
- Produktuaren unitateko kostu aldakorra ..... 1'5 euro
- "GALGA SEGURUA" produktuaren salneurria ..... 2'7 euro

### HAU ESKATZEN DA:

- Errentagarritasun-atalasea kalkulatzeko.
- Ekitaldia bukatzean 4.000 euro galdu baditu, zenbat produktu-unitate saldu dira?  
Ekitaldia bukatzean 3.600 euro irabazi baditu, zenbat produktu-unitate saldu dira?
- Irudika ezazu grafikoki errentagarritasun-atalasea, "galeren aldea" eta "mozkinen aldea" seinalatuz.





### BIGARREN ARIKETA. (PUNTUAZIOA GEHIENEZ: 3 PUNTU)

KOTXE ZORAGARRIA, S.L. automobil erabiliak erosten eta saltzen dituen enpresa bat da. Honako hau da abenduaren 31n aurkezten duen ondareko elementuen zerrenda, eurotan:

■ Enpresako kutxan gordetako dirua.....	900
■ Banku batek emandako mailegua, urte batekoa.....	3.500
■ Bezeroei saltzeko automobilak .....	11.400
■ Programa informatikoak .....	700
■ Jarduera egiteko erabiltzen duen bere jabetzako lokala.....	4.200
■ Legeak hala behartuta bazkideen artean banatu ez diren mozkinak .....	1.250
■ Bezeroei kobratzeko eskubideak, fakturretan oinarrituta .....	300
■ Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko zorrak .....	1.400
■ Hainbat hornitzailei ordaindu beharreko kanbio-letra.....	4.300
■ Banku batek emandako mailegua, 4 urtetan itzultzekoa.....	2.500
■ Hainbat finantza erakundetako kontu korranteetako dirua .....	5.700
■ Lokala eraikita dagoen orubea .....	1.300
■ Bazkideek enpresari egindako ekarpenak, diruzkoak edo ez diruzkoak.....	¿.....?
■ Mahaiak, aulkiak, idazmakinak, fotokopiagailua, faxa .....	1.100
■ Bezeroei kobratzeko eskubideak, kanbio-letretan oinarrituta.....	1.200
■ Ordenagailuak eta inprimagailuak .....	1.500
■ Hornitzaileei ordaintzeko dauden fakturak .....	2.800
■ Sei hilabeteko kreditua lur batzuk saltzeagatik.....	1.500
■ Hiru urterako zorra, lokala erosteagatik.....	500
■ Urte honen bukaeran, zergen ondoren, lorturiko mozkinak.....	¿.....?
■ Hainbat urtetako Ibilgetu Materialaren Amortizazio Metatua .....	2.300

Urte honen amaieran lortutako irabazia interes eta zergak kontuan hartu aurretik 6.462 eurora iritsi da.

Urte honetan finantza gastuengatik 1.462 euro ordaindu dira. Irabaziaren gaineko ezarpen-tasa % 35 da.

#### HAU ESKATZEN DA:

- A) Egoera balantzea idaztea, ondare masen arabera sailkatua: Aktiboa likidezia handienetik txikienera eta Pasiboa galdagarritasun handienetik txikienera. **(1'75 puntu)**
- B) Kalkula itzazu ondorengo ratioak: Kaudimena, Altxortegia, Berchalako erabilgarritasunarena eta Berme eta Zorpetzea, eta lorturiko emaitzak interpretatu. **(1'25 puntu)**